




EUSKO
IKASKUNTZA



MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA

**Manuel
Lekuona
Etxabeguren**



MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



1983



EUSKO
IKASKUNTZA

Manuel Lekuona Etxabeguren

Egilea: Juan Mari Lekuona Berasategi

Autor:



Remigio Mendibururen brontzekok eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

LEKUONA BERASATEGI, Juan Mari

Manuel Lekuona Etxabeguren / Juan Mari Lekuona Berasategi . - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1995 . - 131 p. : il, 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 1) . - Texto euskera - castellano. - Premio Manuel Lekuona 1983

ISBN: 84-87471-84-6

1.- Manuel Lekuona Etxabeguren - biografia 2. Bibliografia - Manuel Lekuona Etxabeguren I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia


ISBN: 84-87471-84-6

Depósito Legal: BI-1385-95

Fotocomposición: IKUR S.A.- Cuevas de Ekain, 3 - 1º - 48005 Bilbao

Impresión: Artes Gráficas Rontegui S.A.L.- Avda Ribera de Erandio, 4
48950 Erandio - Bizkaia

Biografia baten atalak	5
Trazos para una biografía	37
Une gogoangarriak	71
Momentos memorables	71
Bibliografia	85



Biografia baten atalak


Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos-ek «Manuel Lekuona Urteroko Saria» eratu zuenean, eta lehenengo aldiz On Manuel berari eman, honela agertzen zen sari-eraketa eta banaketaren zergatia: «euskal kulturaren alde (egin duen) bere lan osoagatik (opera omnia)»¹. Eta saria eratzeko eta estreinakoz emateko egin zen omenaldian, hitzegin zuten hainbat alorretan espezialduak diren gizon-emakumeek, hala nola artearen alderdi desberdinetan, etnologian eta historian ikasiek, autore oiartzuarraren lan kreatzaile eta zientifikoa goraiatu zutelarik. Sendotzen zuten horrela bai omenaldia, bai saria eratzea.

Ikusarazi zuten «gizonaren eta fededunaren irudia, haren idazlanen luze-zabala, multidisziplinarra eta enziklopedikoa»². Eta autoreak landutako jakintz alderdi guztiak azaltzen ez badira ere, garrantzikoan goraiatzen direla esan behar, eta argi geratzen dela sariaren izateko arrazoia eta egokibidea: lan espezialduak egin izana ahozko literaturan, artelanetan, literatur sorkuntzan eta etno-historian. Eta hori guztia bermatzeko, zerabilkien metodologia berezia, eta landu zuen esparru bakoitzari buruz argitaratu zituen idazlanen zerrenda bibliografikoa.

Gaur Manuel Lekuonaren biografi atalak aipatuko ditugu, bizitzak damaion antzirudia. Horrelako ikuspegi kronologiko bat garrantzizko zerbait dela iruditzen zaigu, ez bakarrik noiz zer egin eta idatzi zuen jakiteko, baizik eta zergatik idatzi zuen eta zein helburukin egin zuen argitzeko, haren lanak iker mailakoak edo zabalkunde mailakoak diren erabakitzeke, berez egokitu zaion langintza duen edo halabeharrak eraginik egin zuen ikusteko, nolako giroan aritu izan zen mugatzeko, zein

¹ «Manuel Lekuona-ri/OMENALDIA/Donostia 23-4-1983/ Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos», 61 or. Libruska, egunari dagokiona.

² E. KORTADI, *ibid.*, 11 or.



izan ziren bere-bereak eta zein hain ospe handia ekarri ez zioten alorrak bereizteko. Hitz bitan, haren lanak nola erabili eta nola baliozta finkatzeko.

1. Kultur bokazio baten lehen zantzuak (1894-1915)

Etxeak, jaioterriak, seminarioak ezarriko diote bizitza guztian agertuko duen irudia eta bete beharko duen zeregin berezia. Urtealdi hau da umetan hasi eta apaiz-formazioa bukatzen duen artekoa. Garai honetan irudikatzen delarik, txikian bada ere, Manuel Lekuonak hil arteraino erakutsiko duen giza moldea.

1.1. Etxeko kultur ondarea

Manuel Alejandro Lekuona Etxabeguren «Etxetxiki»-n jaio zen, duela urte batzuk, urbanizazio berrien eraginpean galdu zen baserrian, 1894ko otsailaren 9an. Gurasoak oiartzuarrak zituen: Jose Luis Lekuona Etxeberria aita, Iturriotzko auzoan dagoen «Espaindegi»-koa, eta ama Frantziska Antonia Agustina Etxabeguren Intxaurrandieta, kaletik hurbil den «Lizarraga» baserrikoa.

Bederatzi senide izan ziren, sailean bigarrena zelarik Manuel. Baita ere etxean izaten zuten Manuelek hainbat aldiz aipatzen zuen amona Tomaxa, Frantziskaren ama. Amona hau izan zen bere iloba Manuel Baliarraingo prezeptoriara eraman zuena, apaiz ikasketak hasi zitzan. Kale-baserri horietakoa zen «Etxetxiki», aitik nekazari-lana egiten zuen etxean, etaaldi berean industri lantegia zuen elektrika zentral batean; eta argi-indarrak gain sagardo txanpañatua egiten zen lantegi horretan³.

Askotan esango digu Manuelek, aitagandik zetorkiola bertsolarietarako estimua. Eta Manuelek berak, oroitzapenak berritzen hasten zenean, esango digu amona Tomaxak erakutsi zizkiola otoitzak, zenbait kantu xahar eta ahozkotasanaren formula tradiziozkoak. Ez da ahaztu beharere, bere ama izango zuela berriemaile, etnografiatzko xehetasunak, «Anuario

3. «MANUEL DE LEKUONA», «Curriculum vitae», idazmakinez Don Manuelek berak egina, 1 or.

de Eusko-Folklore»-ko inkestei erantzunez, biltzen zituenean ⁴. Puntu honetan Euskal Herriko beste edozein ume bezalatsu da Manuel Lekuona. Baina kontuan hartzeko gauza da, berak etxetik asko duela bai kantu zaharretan, bai ipuinetan bai umeen argotean, geroago aztertuko dituen materiale horietan.

1.2. Euskal biblioteka bat «Etxetxiki»-ra

Bada beste xehetasun bat oraindik erabakigarriagoa izan zena Manuel Lekuonaren kultur bokazioan, eta askotan ematen ez dena gure baserrietan. «Etxetxiki»-ko semea zen, baita ere, Migel Antonio Iñarra Mitxelena (1864-1898), apaiza, euskal idazlea eta euskalaria. Manuelen osaba —orde honek latin ikasketak Urnietako erretore ospetsua zen Manuel Antonio Antiarekin egin zituen. Antia honek badu liburu sorta bat euskaraz idatzia ⁵. Erretore honen bidez edo, kuestioa da Iñarra loturik agertzen dela «Euskalerrria» aldizkariarekin, eta batez ere zuzendari izan zen A. Arzakekin. Gogoan hartzekoa da, Antia hil zenean, Iñarrak aldizkarian eskaintzen dion negar-olerkia, eta batez ere gogoangarri Iñarrak aldizkari horretan argitaratu zituen berrogeitaka olerkiak. Aipatzekoa, baita, Migel Antoniok lehen saria irabazi zuela olerki sailean Donostian 1891n, antolaturiko Euskal Jaietan ⁶.

Harreman onak zituen R.M. Azkuekin ere, honen aldizkarian, «Euskalzale» deiturikoan, Iñarraren lanak argitaratzen direnez, eta honen hilberria ere arduraz eta xeheki ematen. Eta lekeitiarrak esango digu nola Nafarroako Diputazioak oposizio-deialdia egin zuen erakundeak sortzen zuen euskararen katedrarako; nola Iñarrak, oposizioak egin ondoren, katedra atera zuen, baina hil egin zela «Etxetxiki»-ko apaiza kargu berria hartu baino lehen ⁷.

4. M. LEKUONA, «Creencias y ritos funerarios», in *Idaz-lan Guztiak*, 2 tomoa, «Eusko Etnografia», «Kardaberaz Bilduma», 23 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 393 or.: «Datos proporcionados por mi madre».

5. J.M. LEKUONA, «Manuel Antonio Antia, Urnietako erretorea, euskal itzultzaile» (1830-1894)», aurtan, mendemugan, Urnietan emaniko hitzaldia, oraindik argitaratu gabea. *Guztira*, 35 izenburu ditu Antiak: 10 liburu, 7 artikulua, 12 itzulpen eta 7 literatur kreazio. Ikus batez ere, J. BILBAO, *Eusko-bibliographia*. «Añamendi» San Sebastián, 1970 t. 1, 182 or.

6. «Euskal-festak Donostian. Oroipengarría, año 1891», «Ignazio Ramón Baroja-ren moldizkiran», Donostia, 1891, VII. or. eta 33-36 or. eta hur.

7. R.M. AZKUE, «Miguel Antonio Iñarra», in «Euskalzale», 2 (1898), 158-159 or.

Migel Antonioren eragina erabakigarria izan zen Manuel Lekuonaren kultur nortasunean. Iñarraren liburuak baserrira ekarri zituzten osaba apaiza hil zenean. Liburuekin batera, idazlanak eta gainerako oroi garri pertsonalak. Esango digu Manuelek: «Oso goiz hasi nintzen han, liburu haiek miatzen, eta batez ere Aldizkariko («Euskalerrria»-ko) ale enkuadernatuak arakatzen»⁸. Eta hauen guztien bulkoa eta eragina, eta osabaren itzala, ume-umetandik sentituko du, batez ere seminarioko bidea hartzen duenetik. Ez zuen etxean ahozko tradizio bizia bakarrik jaso, baizik eta bertan Iñarraren biblioteka eduki zuen, Iñarra hau zelarik, Anaia Nikolas Altzolaren ustez, «euskal literaturan leku bat merezia duena, lehengo gizaldiaren azkenetan izan zen bizkunde-taldean»⁹. Eta biblioteka hori oso gazterik erabili ahal izan zuen Manuelek, ikaslanen lehen iturri bezala euskal gaietan.

1.3. Jaioterriak utzitako kultur arrastua

Etxeak ezezik, jaioterriak ere badu zerikusi jakina Manuel Lekuonaren kultur nortasunean. Ez dira baztertzekoak herri-ingurune ko zenbait gertakarik markatu zizkieten zantzuak. Zehazki esanik, aipatzeke ezin utzi bere euskalkia, ez eta euskalkiko literatur altxor aberatsa ere. Herriko ingurunean aurkitu zituen ahozko tradizioaren eta oroitzapen kolektiboaren lekuko apartak, zaharragoko ahozko estratuen testigu biziak.

Campus-lanetan berriemaile kualifikatuak izan zituenen izenak bakarrik aipatzekotan: koplarriz Jose Manuel Lekuona, «Lexoti Zaharra» izan zuen iturri, eta bestalde, «Aitona» deitzen zioten bat, biok ere ahozko munduaren lekuko ezinhobeak; bertsolaritzan ezagutu zuen nolako eginkizuna betetzen zuen «Kazkazuri»-k, auzoko eta garaikide izan zuen bertso-jartzaile zorrotz eta biziak; narratiba mailan harremanak izateko zoria izan zuen Santa Krutz Apaizaren karlista-guduketan arituetatik oraindik bizi ziren gutxi batzuekin, berauetaz baliatu zelarik ahozko estiloan narratiba-saio bat egiteko¹⁰; eskuizkribuzko bi kaier aurkitu zituen, «Brabanteko Jenobebaren bizitza» bata, eta «Santa Klararen Koplak» bestea, biek bide ematen diotelarik bi azterketa egoki

8. M. LEKUONA, ikus 3. oharra, ibid.

9. P. BIRIATU, «Escritores bidasotarras: Iñarra», «Vida Vasca», 1968, 77-79 or.

10. M. LEKUONA, ikus 3. oharra, 3 or.

herri-poesiari buruz egiteko. Esan dezagun, jaioterrian jasoa zuela iturri aberatsa eta aukerakoa herri-literaturari buruzkoetan ¹¹.

Baita ere, jaioterriak badu zerikusi historia lokalaren dokumentuak eta arkeologi monumentuak aztertzeko Don Manuelek azaltzen duen gaitasunean. Badakigunez, Don Serapio Mujika hamar urtean aritu zen Oartzungo Udaletxean bertako artxiboa ordenapean jartzen, eginkizun hau 1918an bukatu zuelarik. Hain zuzen, urte hauetan egin zituen seminario nagusiko ikasketak Manuelek, eta profesoretzako lehen irakaspenak ¹². Eta badakigu, «Etxetxiki»-ko apaizgaiak orduak egiten zituela Don Serapiorekin, Oartzungo historian lehen urratsak emanez, gero idatziko zuen kondairari ekinez.

Gogoratzen zuen Manuelek nola Bianditz aldeko kronlexak ikustera joan izan ziren Don Serapiorekin, Don Telesforo Aranzadi lagun zutela. Probintziako Artxibuzainarekin izandako harremanak, eta Don Telesfororekin igarotako eguna, garrantzitsuak izan ziren Manuel Lekuona histori eta arkeologi gaietan trebatzeko, eta Don Jose Migel Barandiaranek ere zuzenean jakiteko nolako iruzkinak egin zituen *in situ* Aranzadi doktoreak.

Beraz esan daiteke, jaioterritik eragin erabakigarria izan zuela Manuelek, bai historia lokalari buruz, bertako artelaren historiari buruz, eta etnografia lokalari buruz, herriko ondarea duelarik sentiberatasuna, gaitasun eta iker-gogoak bertako kultur gaietan.

1.4. Seminarioko formazio-urteak (1904-1915)

Aita Lino Akesolok, nahiz eta «Manuel Lekuona eta aoko euskal literatura»-z ari den, ederki adierazten du zer damaion seminarioak Manueli, herrian aurkitutako ahozketasun-mundua ikuspegi sistematizatu batez ikusteko. Akesolok herri-literaturaz dioena, guk orokorrean jakintz alor guztietarako erabiltzen dugu hemen: «Erritik seminariora eta seminariotik errira ibilia dugu. Erritik atera dan mutilari seminarioak begiak

11. M. LEKUONA, «Genoveva de Brabante, por el «bertsolari» Juan Cruz Zapirain», in «Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore», Vitoria, 1929, III-XII or. ID., «Santa Clara'ren kanta zahar bat eta humorismoa», in *Idaz-lan Guztiak*, 9. tomoa, «Literatur-sorkari», «Kardaberaz Bilduma», 30 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1985, 257-283 or.

12. M. LEKUONA, ikus 3. oharra, 1 or.

zabaldu egin dizkio; kultura nagusien giro eta barneetan sartu du; tresna berriak, teknika berriak jarri dizkio eskuetan»¹³.

Azaroa izan behar zuen —1904koa— Baliarraingo Latin Prezeptorian ikasketak hasi zituenean. Hogeitaka ikasle ziren guztira, eta hauen artean Jose Migel Barandiaran. Oartzuarrak aitortu zuenez, «biok lagunak izan gera... eta adiskide min-miñak, gauza guztietan «alkarraituak», naiz-ta izaeraz ta jenioz naiko ez-berdinak»¹⁴. Urte haietatik, eta seminarioko formazioak zituen alderdi orokorrak alde batera utziz, hemen aipatu behar genituzke Manuelek euskararen alorrean eginiko lanak, baita literatur kreazioan egin zituen ahaleginak ere, batez ere olerkian eta antzerkian.

Oraindik apaizgai zelarik, 1914. urte inguru, idatzi zuen *Eun dukat*, bi ekitaldi dituen antzerkiaren lehen aldaera, Donostiako «Juventud Integrista»-n lehengo aldiz eman izan zena. Lehenago idatzi omen zuen beste antzerki bat, aipatu zentru horretan eman zena, *Azienda Publikua* zeritzana, teatro farreragilea, gaur galdua¹⁵. Gero, antzerkiarekin batera, poesigintzan nabarmendu zen Manuel, herriko edo familiarteko zenbait jaitan eskainitakoak¹⁶, eta geroko bere estilo berezia markatuko dutenak.

Elizbarrutiak, ikusirik Manuelek zuen gaitasuna eta prestakuntza euskararen eta euskal kulturen, euskarazko katedrako irakasle izendatzen dute Seminarioan, 1915ean. Oraindik apaiz egin gabea zen Manuel. Eta hurrengo ikasturtearen barruan, 1916an, abenduko tenporetan, apaiz egin zen¹⁷ meza berria Oartzunen eman zuelarik, 1917ko urteberri egunean.

Urte hauetan irudikatzen da Manuel Lekuonaren kultur bokazioa, berau jabetzen delarik zein izango den bere bizitza guztiko helburua:


13. L. AKESOLO, «Manuel Lekuona eta aozko euskal-literatura», ikus 1. oharra, 20 or.

14. M. LEKUONA, in «LUIS DE BARANDIARAN IRIZAR, José Miguel de Barandiarán, Patriarca de la cultura vasca. Prólogo de Manuel Lekuona», «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones», San Sebastián, 1976, VII eta XI or.

15. J.M. LEKUONA, «Manuel Lekuonaren literatur kreazioa», «Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos», Separata del Cuaderno de Sección «Hizkuntza eta Literatura», 3, 139 or.

16. M. LEKUONA, ikus 11. oharra, bigarren aipamena, 181 or. eta hur.

17. M. LEKUONA, ikus 3. oharra, 1 or. «Boletín Oficial del Obispado de Vitoria», 53 (1917), 7-8 eta 9 or.: «Año de 1916/LISTA DE LOS PROMOVIDOS/ ... en las temporadas de Adviento... al Sagrado Presbiterado Don Manuel Lekuona y Echaveguren», 8 or.



Elizaren inkulturatze-lana Euskal Herriaren koordinadetan. 1918-1919ko ikasturtearen sarrera-mintzaldian esaniko azken hitzetan, apaizgaiak adoretzen ditu, baina batez ere beretzat hartzen ditu hitzok Manuelek, bizitza guztiko eginlanen helburutzat hartu ere: «beharrezkoa da, euskal kulturaren mugimendu honetan aurrelari izan zaitezten... Alor hau zuena duzue: ezin duzue bertan behera utzi, esku-hartu beharra daukazue mugimendu horretan...» dena egiazko kulturaren distiraz argitzen duzuela»¹⁸.

Apaizgaiei esandako hitz hauek, ikasleok euskal kulturaz ebanjelioko izpirituz ardura daitezen, eta hain une ospetsuan esaniko hitzek, azpian daramate gaur Elizaren inkulturatzea deituko genukeena. Eta Manuelen kasuari atxekiz, honetara biltzen da: sorkuntz eta itzulpen lana eskatuko du, kristau bizikizun unibertuala euskaraz bizi ahal izateko; eta, aldi berean eskatuko du, kulturaren eta zientziaren parametroekin euskal erlijiotasunaren gertakariak ikertzea. Hau da oso gazte zelarik Manuel Lekuonak beretzat ezarritako helburua, eta honek emango dio batasuna bere bizitza osoari, baita une zailenetan eta ilunenetan ere.

18. M. LEKUONA, «La Métrica Vasca», in *Idaz-lan Guztiak*, 1 tomoa, «Aozko Literatura», «Kardaberaz Bilduma», 22 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 131-157 or.

2. Gasteizko seminarioan irakasle (1915-1936)

Urtealdi honetan ikerlariaren nortasuna irudikatzen da eta bere gaitasun intelektuala sendotzen: ahozko literaturaz gaur oraindik aitoritzen zaion maisutza eskuratzen du, eta ikertzeko gogoia beste alorretara zabaltzen, batez ere etnografiara eta kristau arkeologi eremuetara.

Oso gazterik ekin zion irakasletzako zereginari. Eta Manuel hurbiletik ezagutu dugunok dakigu, ezer bazen eta, irakaslea izen zela, horretarako bokazioa zuena.

Hogei urteren buruan seminarioan egin zuen irakasle-zerbitzuan denetik erakustea otu zitzaion: euskara, arkeologia sakratua, hebraiera, grekera biblikoa, eta teologiazko nahiz filosofiazko zenbait gai. Asignatura askotaz arduratu beharra ikasle asko eta irakasle gutxi dauden leku eta garaietako kontuak ditugu hauek. Hala ere, jakintz eredu asko landu behar honek eragin onik ere izan zuen Manuelen proiektio intelektualean, bai bere jakitate ugarian, bai metodologian. Jakintza zabaleko gizona agertzen zitzaigun; eta bere ezaugarrietako bat da, disziplinarreko metodologia erabiltzen zuela gaiak arakatzeko orduan.

Ematen zituen eskolei bagagozkie, ahozko literaturako eta arkeologiako lanak izango dira arrasturik sakonena utzi zizkiotenak Gasteizen egindako lanetan. Baina orduan argitaratutako lanei begiratzen badiegu, ahozko literatura eta etnografia dira bere idazlanetan lekuri gehiena hartzen dutenak, oso gutxi argitaratzen duelarik arteari buruz, salbuespen delarik «Dos grecos en Guipúzcoa» artikulua ¹⁹.

18. M. LEKUONA, «La Métrica Vasca», in *Idaz-lan Guztiak*, 1 tomoa, «Aozko Literatura», «Kardaberaz Bilduma», 22 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 131-157 or.

19. M. LEKUONA, «Dos grecos en Guipúzcoa (carta abierta)», in RIEV, 8 (1927), 164-169 or.

2.1. Hasierako bi idazlan berezi

Berak egin behar izan zuen seminarioan 1918-1919ko akademi ikasturtearen sarrera-mintzaldia, *La Métrica Vasca* ikasgai harturik, Mintzaldi honetan lehenik agertzen da gure autoreak zuen sentiberatasuna bertako kulturaren gaietarako, aurreko urtean J.M. Barandiaranek erakutsi zuen bezala, sarrera-mintzaldia *Euskal Prehistoriaz* egin zuenean. Eta Manuelek egin zuen hitzaldia gaurko ikuspegitik ikusiz, esan dezakegu euskal metrikaren gaiak lehen lekua hartzen duela Bergarako Eusko Ikaskuntzen Batzarra (1930) baino lehenago argitaratu zituen artikuluetan; eta gainera, bere espezialitateko gaia izango duela bizitza guztian, Oiartzungo azken urteetan ere bai²⁰.

Eijo y Garay Gotzainarengandik jaso zuen Elizbarrutiko *Kristau-Ikasbidea* berria euskaratzeko enkargua, Pildain Doktoreari eskatu ziolarik doktrinaren jatorrizko testua. Lekuonaren itzulpena, egileak hala eskaturik, Orixe idazleak berrikusi zuen, eta gero ofizialki Elizbarrutiko Artzipresteen Batzordeak aztertu zuen, eta azkenik Euskaltzaindiak.

Bada ohargarri gertatzen zaigun beste zerbait ere: Manuelek *Kristau-Ikasbidea*-ko zati bat itzultzen zuenean, itzultitakoa aztertzen zuen bere euskarazko eskolan zituen ikasle trebatuenekin. Dotrina itzultzeko prozedura honek, taldean lana eginez eta paraturiko itzulpena ofizialki berrikusiz, gogora ekartzen digu Don Manuelek oso gogoko zuen lanmetodoa, hirurogeigarren hamarkadan erabiliko zuena, Vaticano II.go liturgi testuak, euskaratuak, taldean paratu zituztenean.

Handik denbora gutxira eskatu zioten euskaraz itzuli zitzala Gasteizko Gotzaindegiko Buletin Ofizialaren zenbait testu; eta orobat «Gure Mixiolaria» Misiotako Aldizkarian euskal idazlaria izan zen, aldizkari hau zelarik Don Jose Ariztimuño, «Aitzol»-ek zuzentzen zuen Elizbarrutiko Misioak Erakundearen albistaria. Horrek guztiak erakusten digu nola Elizaren inkulturazioak, eta kasu honetan testu ofizialen itzulpenean mamitzen denak, hezurdura bat ematen dion Don Manuelen bizitzari, eta etengabeko helburu bat gertatzen zaion aurrerantzean beteko dituen zereginetan.

20. Ikus *Idaz-lan Guztiak*, 11. tomoa.

2.2. «Eusko-Folklore» Elkarte (1921)

Eusko-Folklore Elkarte; bere hileroko ikerketa-orrialdeak eta bere «Anuario»-a, esan dezakegu aldi berri baten hasierak direla Manuel Lekuonaren ikerkuntza zereginetan. Bigarren lekuan dator bere izena, Don José Migelenaren ondotik, Zuzendaritza osatzen dutenen kideen zerrendan²¹. «Anuario»-ko lehenengo zenbakian azaltzen diren bi idazlanetan «Lenguaje infantil» eta «Lenguaje empleado con los animales domésticos» gaiei buruzko inkestak aurkezten dira. Bi lan hauek ikaslan bana daramate azkenean, Manuel Lekuonak idatziak²². Arreta biztu digu lehenengo ikaslanak, bertan iadanik lehenengo oharkizunak agertzen direnez, hitzak estilizatzeko umeez erabili ohi dituzten prozedurei buruzkoak, berauek gero garatuko dituelarik apain-olkeriaz mintzatzen zaigunean²³.

Aipatu beharrik dauzkagu Don Manuelek inkestei erantzunez egindako lanak, eta gero «Anuario»-n agertzen direnak: «Fiestas populares» (1922), «Creencias y ritos funerarios» (1923), «La religiosidad del pueblo» (1924), «Establecimientos humanos» (1925). Eta Elkarte bereko beste argitalpen-sailean, «Brabanteko Jenobebaren bizitza» (1929) deritzanaren edizio kritikoa aurkezten du, bizitza hau delarik Juan Krutz Zapirain bertsolari errenteriarrak bertsotan eginiako biografia. Poema luze honi Lekuonak jarri zion aintzin-solasean auzetuzten da lehen aldiz, Manuelek bertsolaritzari buruz duen ikuspegia. Hala dio Lino Akesolok: «or asi da Lekuona bertsolaritzaz bere lehen argibideak ematen»²⁴.

Esan daiteke gaur, «Eusko-Folklore»-ko lanok garrantzi erabakiorra dutela Manuel Lekuonaren iker-gaitasunerako: ohitzen da landa-lanetara, ikasten du ikaslan-gaiak zehazki deskribatzen, bere burua gai egiten du arakatutako gaiei buruz teorizatzeko, historiaren, artearen, antropologiaren eta beste zientzien ikuspegietatik; eta konparatzeko bertakoa beste kulturetan ematen denarekin. Hemen sendotzen da bere metodologia, bere kultur ikuspegia, euskal gauzetarako duen sentiberatasuna. Hemen datza bere prestakuntzaren giltza, eta etorkizunean egingo dituen lanen bulkoa.

21. «Anuario de la «Sociedad de Eusko-Folklore», 1 (1921), 7 or.

22. Ibid.,

23. Ikus bereziki 53. oharra.

24. L. AKESOLO, ibid., 13. oharra.

2.3. Ahozko euskal literatura (1930-1936)

Urte mugarría izan zen 1930eko Manuel Lekuonak ahazko literaturari buruz argitaratuko zituen ikaslanentzat. Alde batetik, «Anuario»-an argitaratu zuen «Cantares populares» kantu-bilduma, «Kardaberaz» taldeko apaizgaien laguntzarekin. Hor biltzen da kantutegiaren antologia herrikoi bat, autoreak bere testu-azterketetarako erabilia, eta landa-lanen emaitza.

Urte honetan bertan, «Eusko Ikaskuntzaren Bostgarren Batzarrean», «Euskal Artegintzari» Bergaran eskainitakoan, ponentzia bat eskatu zioten «La poesía popular vasca» (1930) gaiari buruz. Mintzaldi honetan deskribatzen eta aztertzen dizkigu euskal olerkiaren hiru genero herrikoi: apain-olerkia, koplá zaharrak eta bertolaritza. Gauzarik aipagarriena da, nolako maisutasuna agertzen duen literatur fenomeno kantatu eta mimatua deskribatzeko. Lanmetodo bezala, badirudi baliatzen dela «Seminarioan erakusten zituen euskal literaturari buruzko ikasgaietaz», autoreak «Yakintza» aldizkarian idatzi zuenean aitortzen duenari bagagozkio²⁵. Esan daiteke, autoreak lehen hurbilketa bat egiten diola mintzaldi honekin gero etorriko zen liburu klasikoari, *Literatura oral euskérica* (1935) deritzanari. Bergarako ponentzian, teorizazioan hainbeste zulatzen ez badigu ere, autoreak gero hartzen duen mailarik altuenera iristen da testuen deskripzioan eta azterketan.

Bergarako mintzaldia eman eta handik bost urtera argitaratu zuen liburuá, iadanik klasikotzat har daitekeena ahazko euskal literaturan. Hitzaldia izan zen liburuaren iragarki eta berau idazteko eskakizun. Bien arteko desberdintasunik handiena ahazko estiloaren teorizazioan datza, ahazkotasunaren ezaugarriak finkatzean, eta ezaugarriok ahazko munduari nola erantsi zehaztean. Alderdiok dira hain zuzen liburuan lantzen dituenak, mintzaldian ez bezala.

Liburuaren oin-oharrean autoreak adierazten digu, Marcel Jousse antropologo frantzesá izan zela bere iturri garrantzitsuenetako bat, eta konkretudi, *Le Styl oral rythmique et mnemotechnique chez les Verbo-motors* (1925)²⁶. Hemendik baliatzen dela dirudi Don Manuel bere

25. «Voy a extraer para el cuerpo del trabajo una de las lecciones de Literatura euskérica explicadas este curso en el Seminario Diocesano de Vitoria», in «Yakintza», 1 (1933), 136 or.

26. M. JOUSSE, *Le Styl oral rythmique et mnemotechnique chez les Verbo-motors*, «Archives de Philosophie», «Gabriel Beauchesne», París, 1925.

ahozko literaturaren zenbait ezaugarri zehazteko, beste medio etnikoetan indarrean dauden gertakariak hemengoekin konparatzeko, tradizioaren rolak finkatzeko eta abar. Antropologo jesuita honen berri Seminarioko bibli-ikasketen bidez izan zuen, D. Jesús Enciso irakaslea omen zelarik liburu honen erakertasunaz hitzegin ziona. Esan daiteke, Marcel Jousen lanak informazio ugarrria dakarkiola beste kulturei buruz, zientzi formulazio egokiak eta beste medio etnikoetan gertatzen zenaren berri, honetaz gainera oinarri sendoa eskuratu ziolarik ahozkotasunaren ikuspegi zabala edukitzeko.

2.4. Literatur kreazioa


Bestalde, euskara eta euskal literatura erakusten aritu zenean, ahalegin bat egin zuen literatur sorkuntzan ere. «Eusko Olerkiak Jaietan», Lekeition 1936ko ekainaren 28an ospatu zirenetan, lehenengo saria jaso zuen epika zeritzan sailean, *Yesu Aurraren bizitza* idazlanarekin²⁷. Aipatzekoak dira, baita ere, kontapoesiaren haritik egin zituen olerkiak eta «Olerti» guduketetara aurkeztuak: «Eroriak» (1931), «Martiriaren aita ta ama» (1931). Eta benetan aipagarri, haur-poesiazko eredu fin eta landuak, «Euskaltzaindiaren Laguntzaileak» taldearentzat eginak, erdaldun umeei euskaraz erakusteko, kantuen eta haur jolasen bidez²⁸. Orduko olerkari sarituen artean, apaiz egin berriek eta apaizgaiek osaturikoan, bat gehiago zen Don Manuel, ikasle trebeez inguratua: Jakakortajarena, Loidi, Etxeberria, Otamendi, Sukia, hauek erakusten zutelarik Seminarioan nabari zitekeen literatur mugimendua²⁹.

Gasteizko urteak gaitasuna dakarkiote Don Manueli ikerketarako eta literaturarako. Uste dut eragin ukaezina erakarri ziola «Lyceum Cassiciacum» taldekoa izateak. Talde honetakoak ziren A. Pildain, J.M. Barandiaran, L. Arabiotorre eta Manuel Lekuona. Beren asmoa izan zen erlijio eta zientzi gaiez mintzatzea, horretarako astean bitan biltzen zirela. «Bakoitzak orrialde batzuk aurkeztu behar izaten zituen bileran, norberak zituen zaletasunen eta lantzen zituen alorren arabera». Batzar hauetatik

27. EGI del PV "Literatura II", "Añamendi", Zarauz, 1970, 339-340 or.

28. J.M. LEKUONA, «Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933)», in «Euskera», 36 (1991), 491-496 or.

29. Ikus 15. oharra, 121 or.



sortuak dira «Gymnasium» eta «Idearium» aldizkariak, apaizgaien eta apaizen zientzi eta literatur formazioa eguneratzekotan³⁰. Esan daiteke, lagunarteko eta lankide-arteko lansaio hauek beren eragin eraldatzailea izan zutela Seminarioko ikaslanen plangintzan; baina batez ere zerikusi ederra dute Manuelengan, honen ikertzeko eran, idazkeran eta zereginari gogor eusteko gogoan.

Gasteizen irudikatzen da Don Manuelen ikerkuntz irudia eta maila: bokaziodun irakaskuntzarako, espezialduen begiradaren jabe arte-gaietan, landa-lanetara ohitua, disziplinararteko metodoa landua zeukana eta idazlanetarako trebatua. Gasteizen hasi du, baita ere, bere kultur proiektu zabala. Eta urte haietako bere tankera markatzekotan, esango genuke miresten zuela eta beretzat egiten Don Julio Urquijok bere «Revista Internacional de Estudios Vascos» aldizkarian agertzen zuen metodologia garaikide eta zehatza.

Seminarioko zereginak ez zuen moldatu Don Manuelen irudia jakitun eta idazle aldetik bakarrik baizik eta markaturik utzi zuen ere gizon eta apaiz bezala. Euskarazko katedraren arduradun zenez, ezinbestekoa gertatu zitzaion, guda zibila hasi zenean, politikan sartzen zenaren salaketa. Eta honek sufrikariozko urteak ekarri zizkion, konbentu batean gorderik egoteko urteak, eta desterruan bizi beharra, beste apaizek ere jasan izan zuten bezala. Bere biografi profilarren argiak eta itzalak dira.

30. L. BARANDIARAN, 14. oharra, 107 eta hur. or., ongi hornitu eta aurkeztutako lana.

3. Gordean eta erbestean: Bidagurutzea (1936-1941)

Guda zibilak izan zuen garrantasunik aski Manuel Lekuonaren bizitzan. Gerra hasi zen egun haietan Bóveda de Valdegobian aurkitzenen, Don Mateo Mujikari lagun egiten bisita pastoralean. Han jasan behar izan zuen bizikizun gogorra: soldadu talde batek, alto botata, estualdi latza pasarazi zioten Gotzainari eta honen laguntzaileari. Bere begiz ikusi zuen nolako tratua eman zioten elizbarrutiko Artzainari eta nolakoa zen jazartu zirenen amorrua elizbarrutiko zenbait pertsonen eta erakundeen aurka.

Ez ziren gozoak familiatik zetozkion berriak. Bi anaia fusilatu zizkioten: Julian ezkongai eta Martin apaiza. Heriotz hauen berriz Manuelek izan zuenerako, iadanik aldeginaren zuzendaritza Don Mateo, Erromarantz hartuz. Ez bide ziren errazak izan egun haiek apaizgaitegiko bizitzan. Eta konkretuki etorri zitzaion Manueli zerikusi handiko estualdia. Jakinarazi zioten hiru pertsonak bere galde egiten zutela seminarioko sarreran. Hiru pertsona hauek, hain zuzen, asko nabarmenduak ziren herritarrek detentatzen, hauetako batzuk fusilatutakoak ere, izan zirelarik.

Antzemanik Don Manuelek bere bila zetozela, ihesari eman zion bizirik aterako bazen. Horrela, 1936ko abenduaren zortzian, paisano jantzita, Lasartera etorri zen autobusean, gero Lasartetik Frantziara edo joateko asotan. Gau hartan Orian egin zuen lo. Eta hurrengo egunean, Don Antonio Abauntzek, Brigiden kapeilauak, bere etxean opa zion gordeleku. Han bizi izan zen ezkutuan, harik eta guda bukatu eta gauzak lehengo onera etorri arte.

Aldaketa sakona Don Manuelen bizitzan eta egin lanetan. Iadanik ez da gehiago irakasle izango, eta ez du berriz lantaldean ikerketan aritzerik izango. Eta ikaslanetako gaietan ere, espezializazioko eremu berriak lantzerako beharturik aurkitzen da: ordurarte ahozko literaturan eta kristau arkeologian bere langintza finkatu zuena, beharturik aurkitzen da erlijio-historian murgiltzera, batez ere, eliz historia lokalean. Ezkutuan egon zen

urteetan, konbentuko artxiboa beste ikerketagairik ez zeukanez, eta ikusiz euskal lanek, debekatuak izateaz gainera, arrisku gogorra zekartela, dokumentu zaharrak aztertzen ditu historiarien haritik, egun hobeagotarako utziz euskararen esparruko lanak. Bidagurutze erabakigarria gerrarena Don Manuelen biografian.

3.1. Lasarteko konbentuan ezkutaturik (1936-1941)

Konbentuko babespean idatziak ditu historia lokaleko hiru monografia: *La Parroquia de Lasarte*, 1939an bukatua, *El convento de las Brigidas de Lasarte*, Don Antonio Abauntzi 1941ean eskainia, eta *Del Oyarzun antiguo*, urte haietan idatzia, nahiz eta 1959an argitaratu zen. Zehazketa hau dakar autoreak: «Garai hartan, (Lasarten alegia) burutu nuen nere idazlan historikoa *Del Oyarzun antiguo* deritzana»³¹.

Parrokiako historiaren azken parrafoan aurkitzen da ikerlari bezala eman duen aldaketaren giltza, orain bakardadean bere idazlana prestatu behar duenez, osagarri eta lagungarri eskasekin, baina beharrezko diren haiekin: «Eta hemen amaitzen dira gure kondaira-lanak Lasarteko parrokiaren lehenengo fabrika-liburutik... atereak. Kondaira hauek fundazioaren aurkibide historiko bat izan nahi lukete, beti interesgarri den aurkibide historiko bat. Eta eskaintzen dizkiegu, parrokiako eliztarrei adinbat, edota gehiago, gure antzeko egoeran aurkitzen diren pertsonen. Izan ere hauek, guk ezinbesteko atsedenaldiran erabili dugun materiale baten antzeko zerbait edukiko balute, apailatu ditzakete, geuk egin dugun apaltasun berberaz, beste hainbat monografia, Euskal Herriko eliz historiarako interes handia izango luketenak»³².

Ikuspegiarik gabeko bidagurutze itsu-itsuan, berriro agertzen da Manuel Lekuonaren bizitza beste behin bideratuko duen helburua: Elizaren inkulturatze lanetan jarraitzea. Hizkuntza erabili eta lantzeko eragozpenak zeuden hartan, historia lantzeari ekiten dio, gure lekuko Elizaren historiarako lan interesgarriak utziz. Eta adierazi nahi du nola, setiora beharturik gauden orduetan ere, berak zituen materialeak edukiz gero, egin daitezkeela antzeko interesa duten lan monografikoak. Aipatu parrafoan hala ez badio ere, ikusten zaio lekuko elizaren historiari

31. Ikus 3. oharra, 4 or.

32. M. LEKUONA, *La Parroquia de San Pedro de Lasarte. Su erección (Datos históricos)*, in *Idazlan Guztiak*, 4. tomoa. «Kondaira A», «Kardaberaz Bilduma», 25 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 123 or.

buruzko ikaslan hauek izpirituzko atsegina eta bakea dakarkiotela, hain kontsolagarri bata eta bestea gerrak erasotzen duenean.

Konbentuko historiaren eskaintzan dioenak, bai landu dituen gaien buruz, eta bai hauek tratatzeko ikusmoldeari buruz esandakoez gainera, giltzak ematen dizkigu bere hari teorikoak eta bere metodologia ezagutzeko. Aitoritzen du: «asko kosta zait paperak eta dokumentuak irakurtzen egin behar izan dudan ahalegin luzea»... eta gainera «lan horretan ipini dudan borondatea»...³³. Gure aldetik, liburuaren aurkibide historikoak ikusarazten digu nolakoak izango diren Don Manuelek egingo dituen etno-historiako lanak ondorengo urteetan. Aipa ditzagun liburutik: lekua eta herria, santutegia, benta, dorrea, etimologia, munizipio-era, feudal eragina, bideak, jauregia, eliza, dorretxea... Gero, Okendotarraketa konbentua»... Calahorran eta Andoainen osabeteko dituen idazlanek ere antzeko gaiak harrutuko dituzte, metodologia bera erabiliz.

Gerrako gertakizunek ezarritako babeslekuan Don Manuelek bizi izan zuen giroko beste alderdien berri emateko, bi idazlan ditugu aipatu beharrak, orduko Manuelengan zerikusi handia izan zutenak: «Gerrateko nere amabi kantak» poemategia, eta Ama Rafolsenak omen ziren iskribuak, baina, Manuelek erakutsi zuenez, faltsuki idatziak. Lehenik aipatutako olerkiok bake-kantuak ziren gerra-garaian. Poema idilikoak gatazkaren zurrunbiloan idatziak. Hauek dira autorearen azken poemategi lirikoak.

«Hermanas de la Caridad de Santa Ana» izeneko mojak sortu zituenaren idazkiak zirela eta, halabeharrez aurkitu zuen Don Manuelek Ama Rafols-enak onen ziren idazkietan bazirela XVIII. mendeko debozionario bateko testuaren egokitzapen faltsuak baizik ez zirenak³⁴. Manuelek idatzi zuen artikulu bat gertakari honi buruz, moztuta geratu zelarik Erroman Ama Rafols-en beatifikatze prozesua³⁵. Orduko ikuspegitik begiratuta, on da gogoratzea, idazki hauek erabiltzen zirela adierazteko Jesusen Bihotza guda irabazi zutenen alde zegoela, aldi berean oinaze sakona sortzen zutelarik galdu zuten fededunen artean.

33. M. LEKUONA, *El convento de las Brigidas de Lasarte*, ibid., 127 or.

34. M. LEKUONA, «Escritos de la M. Rafols. Sus Fuentes», in *Idaz-lan Guztiak*, tomo 7, «Konadaira E», «Kardaberaz Bilduma» 28 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1983, 447-458 or.

35. Ikus 3. oharra, 5 or. «Los escritos de la Madre Rafols», «Idaz-lan Guztiak», 11 tomoa, «Kardaberaz Bilduma 32», «Gráficas Eset», Vitoria, 1987, 324-328 or.

Dena dela, aurtengo urrian, Manuel Lekuonaren mendemuga ospatzen ari garen honetan, dohatsu izendatuko dutela Erroman Ama Rafols. Sakabanatutako bideak denborak elkartzen ditu historiaren joanean!

3.2. Calahorrako erbestealdia (1941-1955)

Guda zibila bukatu ondoren, oraindik beste bi urte egin zituen Don Manuelek Lasarten. Calahorra 1941ean joan zen, maiatzeko hilean seguruenik. Guk dakiguna da, Manuelek 47 urte egin zituen egunean, 1941eko otsailaren 9an, eskaintzen diola Don Antonio Abauntzi konbentuko historia. Hurren, maiatzaren 2an, Bitoriako Gotzaintegian apaiz-lizentzien agiria ematen diote, Errioxako Elizan aurkez dezan.

Ikusi zuenean egoera aldatu zela, normaldu nahi izan zuen bere ezkutuko bizimodua. Beste hainbat apaizekin egin zuten bezala, Euskal Herritik aldegitara eskatu zioten agintariak, gerraurreko jokabidearen zigor bezala. Orduan berak Calahorra berezi zuen erbestealdu. Bazituen arrazioak baskoien hiri zahar hau aukeratzeko, han zeudenez euskal elizaren zati bati zegozkion eliz artxiboak, Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoako zati bati zegozkion dokumentu zaharrak. Bestalde, jarrai zitzakeen histori lanak, Lasarten atsegin handiz hasi zituenak.

Elizbarrutiko artxiboetan murgildu zen, erbestean, eta noiz arte ez zekiela, igaro behar zuen denborari kultur etekina ateratzeko asmotan. Aipatu dugu asko kosta zitzaiola Lasarten egin zuen ahalegina. Baina bazekien jakin, ona izan zela ezinbestezko setioan egin zuen lana, batez ere sakontzen joateko Euskal Herriko Elizaren historian. Horregatik, gauza bera egin nahi izan zuen Calahorran: lekuko Elizari buruzko ikaslanak, Euskal Herri osokoarena ere ahaztu gabe, batez ere orduan Bitoriako Elizbarrutia osatzen zutenena.

Hamalau urtez aritu zenez ikerketak egiten Calahorrako artxiboan, ondorio bezala, dokumentu zaharren azterketak ugaritu egin dio bere jakintz altxorra, heldutasun bat eman dio euskal gaien ikaskuntzarako eta zabaldu egiten dio bere ikuspegi historiko orokorra.

Calahorrako elizei buruzko idazki historiko, arkeologiko eta artistikoak argitaratzen ditu, «Berceo» aldizkariaren gerizpean. Hona hemen idazki horietako zenbait izen: «La catedral de Calahorra» (1947), «La parroquia de San Andrés de Calahorra» (1949), «La parroquia de Santiago de Calahorra» (1952). Lekuko eliza dute ere gai beste artikuluko: «Naturaleza de los Santos Mártires de Calahorra» (1949), «El

calagurritano Poeta Aurelio Prudencio. El XVI Centenario de su nacimiento (348-1948)», «Oficio de los Santos Mártires de Calahorra. (Del breviario de Calahorra, siglo XIV)»³⁶. Hauen guztien helburua da lekuko eliza hobeto ezagutzea eta izpirituzko bizikizunak lekuko elizari buruz aldeztatzea.

3.3. Euskaltzain oso (1950)

Oraindik Calahorran zelarik egin zuten euskaltzain oso. Sarrerako mintzaldia Iruñean egin zuten 1950ean. Honela dio akademi ekintzara eginiko deialdiaren txartelak: «Manuel Lekuona, Euskaltzain befi jaunaren sarrera 1950'gko Garagarila'ren 24'ean, arratsaldeko 7'etan, Napafoa'ko Ekauta-jauregian, «Príncipe de Viana» deritzan Bazkunaren jai-gelan, egindo da»³⁷. Hau izan zen orduan emandako hitzaldiaren gaia: «Gorozika'tik Gurutzeaga'ra edo Gurutzearen izena gure toki-izendegian»³⁸.

Izendatze honek adieraz dezake, bere onera etortzen ari zela Manuelen egoera pertsonala, eta gainera, erbestean aurkitzea ez zitzaiola izan eragozpen Euskaltzaindirako izenda zezaten, hau da, euskarara emanik den eta gerraurreko urte haietan langintza diztiratsua bete zuen erakunde baterako. Baina gipuzkoar baten sarrera Iruñean ospatu izanak esanahi digu, Nafarroako hiriburuan Donostian eta Bilbon baino erreztasun handiagoak zeudela euskarari buruzko ekintzak, bete ahal izateko.


Calahorrako azken urteetan, eta Euskaltzaindiaren aginduz, prestatzen du *Gero*-ren, euskal literaturako liburu klasiko honen, laugarren argitalpena. Lekuonaren edizioa 1954koa da; eta Manuelek egin du «Aintzin-solas» luzea. Hitzaurre honetan agertzen da autorearen estilo ukaezina, sarrera berau idazlan berezitat har daitekeelarik Don Manuelek euskaraz landuriko saiakeren artean³⁹.

36. M. LEKUONA, in *Idaz-lan Guztiak*, 5 tomoa, «Kondaira B», «Kardaberaz Bilduma». 26 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 7-55 or.: 57-106 or.; 107-167 or.. ID., *ibid.*, 6 tomoa, «Kondaira D», «Kardaberaz Bilduma», 27 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1983, 77-88; 89-109 or. 7 tomoa.. 69-77 or.

37. Aita Villasante han izan zen, eta berak emana dut orduko txartela.

38. M. LEKUONA, in *Idaz-lan Guztiak*, 8 tomoa, «Euskerolojia», «Kardaberaz Bilduma», 29 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1984, 147-176 or.

39. J.M. LEKUONA, ikus 15. oharra, 138-139 or.



Gasteizko garaian baino gehiagotan azaltzen ditu bere idazlanak kultur zabalkundeari emaniko aldizkarietan, hala nola «Berceo», «Euzko Gogo», «Egan» eta abarretan. «Egan»-i buruz aipatu beharra dago, Don Manuel Calahorra uzteko asmotan hasi zenean, eta Donosti inguruan kokatzeko asmotan, aldizkari horretako talde zuzentzailearen esanetara egin zuela lan, liburu berriei buruzko erreseinak idatziz eta, batez ere, arteari buruzko erreportaiak argitaratuz. Eskupeko bat jasotzen zuen lan hau egiteagatik.

Beharrak eragiten dio ez gutxi Manuel Lekuonari historiaren barrutia harrotu eta lantzer. Garai honetan oso bigarren mailan geratzen zaizkio ahozko literatura eta literatur sorkuntzazko lanak. Baina Gasteizen baino areago idazten du artelanei buruz, aditzera ematen dutenez, esate baterako, Antxietaren eta Bazkardoren eskulturei buruz argitara eman zituen idazlanek ⁴⁰. Berrito lotzen zaie Gasteitzen, «Kristau Arkeologia» izeneko eskoletan eman ohi zituen gaiei.

40 ID., in *Idaz-lan Guztiak*, 3 tomoa, «Arte-izti», «Kardaberaz Bilduma», 24 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1978, 263-272; 283-289; 291-305 or.

4. Zabalkunde urteak Andoainen (1956-1975)

Erbestealdia 1955eko udazkenean amaitzen du. Calahorrratik etorrita laister, ebakuntza bat jasan ondoren, kaperautza baten atzetik dabil, erabat hemen gelditzeko. Bazuen arrazoibiderik aski kaperautza bat eskatzeko: ogibide bat izateaz gainera, ordu libreak nahi zituen bere idazlanetarako. Baina erraztasun gehiegirik ez zuen izan elizbarrutiaren aldetik hori lortzeko, harik eta Andoaingo Jesuitinek kaperako eta ikastetxeko ardura izpirituala opa zioten arte. Eta laguntza handia izan zen Don Manuelentzat, alderdi guztietatik begiratuta, ia 20 urtez Arregi-Aranburu familian bizi izana, «Eguzkialde» landetxean.

Kultur zabalkunde urteak zirela esan behar Berrospeko kaperauak Andoainen bizitutako hauek. Euskal kulturaren zabalkundeari batez ere emaniko urteak. Eta egon badago gauzak horrela gertatu izanaren argibiderik. Irakasletza zen ongien zetorkion zeregina. Eta eraso politikoa zerbait atertzen hasi zen hartan, gero eta eskabide gehiago zetozen handik eta hemendik euskal hitzaldi eta idazlanetarako. Gerran esku-hartu ez zuen belaunaldiaren suspertzea zen. Eta hor Don Manuelek, beste askok bezala, bokazioa eta beharra uztartuz, kultur zabalkundeari ekiten dio, berak ikerturik zeukana jendearengana erakarriz. Eta hor hasten da bere konferentzi sail luzea, hor hasten ere aldizkarietan agertzen dituen erreportaiak, batez ere arteari buruzkoak.

4.1. Lekuko eliz historia

Hasieran Oiartzunen egin zuen eran, eta gero Lasarten eta Calahorran, Andoainen ere lekuko kultur gaiak ikertu zituen, bereziki eliz historiarenak. Kaperautza berrira etorri eta laister, 1956an, eman zuen bere «Doble conferencia acerca de la figura histórica de la M. Cándida de Zipitria y Barriola, Fundadora de la Congregación Religiosa de las Hijas de Jesús». Andoainen bi urte zeramazkienean, opuskulu eran idatzi zuen *La Iglesia parroquial de Andoain. Boceto histórico* (1958). Handik

zenbait urtera, bi mintzaldi ere eman zituen, gero argitaratuko zituenak: «Aita Larramendiren jaiotetxea» (1966), eta bigarrena, «Juan Bautista de Erro y Azpiroz. Conferencia-estudio» (1973)⁴¹.

Herriko esparrua baino zabalagoko ikuspegi batetik, irakurri zituen Andoainen, apostolutza, eta kultur talde desberdinetakoek eskaturik, zenbait ikasgai arteari eta etno-historiari buruzkoak, gai hauei buruz zuen ikusmoldea formulatuaraziz. Aipatuko nituzke «Arte-izti: estetika» eta «Arte edergin euskaldunak»⁴². Behar bada idazlan gutxiago eta laburragoak ditu Andoaini eskainitakoak lehenago bizi izan zen herrietakoekin erkatzuz gero. Baina beste inon ez ditu eskaini zabalkundelan hain garrantzizkoak; eta orduan eginak ditu arteari buruzko erreportaiak, eta orduan jarriko da harremanetan artista biziekin, profesoko eta laguntasun harremanak edukiz.⁴³

4.2. Liturgi testuak euskaratzen

Vaticano II. Kontzilioak liturgian herri hizkuntzak erabiltzea erabaki zuenean, ahalegin handi bat eskatzen zitzairen lekuan lekuko elizei liturgi testuak itzultzeko. Itzultzaile kualifikatuak behar ziren, literatura erlijiozkoaren eredu zaharrak ezagutuko zituztenak, eta, aldi berean, gaurko hizkuntza senaz jantziak eta gaitasun baten jabe zirenak zeregin horretarako. Hasieratik esku-hartzen du Don Manuelek eginkizun hau betetzeko izan ziren ekitaldi guztietan, extraofizial eta ofizialetan: bai Urretxun eginiko bilera partikularretan, bai Donostiako gotzaindegian eraturako batzordean (1964), bai liturgi itzulpenetako elizbarruti-arteko batzordean (1968)⁴⁴. Oro har esan daiteke, lantaldearen idazkari bezala aritzen zela Don Manuel, eta konfidantzazko arduradun bezala jotzen zela, bai elizbarrutientzat, bai itzultzaileentzat berentzat ere.

Taldelana izan zen liturgi testuen itzulpengintza: euskalki guztietatik zetozen itzultzaileak biltzen ziren, bilatuz beti euskaldun denentzat erabilgarri diren esaldi onargarrienak. Proklamazio hizkera behar zuen izan liturgiakoak, hitzez esatearekin bakarrik ulertu eta gozatuko den

41. ID., *ibid.*, 6 tomoa, ..., 459-482; 483-492; 507-527 or. Ama Kandidaren idazlanak zabalkunde-kaierren modura argitaratu ziren.

42. ID., in *Idazlan Guztiak*, 3. tomoa...

43. ID. *ibid.*

44. ID., *ibid.*, 12 tomoa. «Geigarriak eta arkibideak», «Kardaberaz Bilduma», 33 z., «Gráficas Eset», Vitoria, 1988, «Apendiz de Re Liturgica», 43-94 or.

hizkera, ahozkotasunaren klabeak hartuz eta landuz. Horretaz gainera, kontuan edukitzekoak ziren gaur esegesilanetan eginiko aurrerapenak, eta orobat Bibliako jatorri hizkuntzak ezagutzea, eta zeresanik ez, azken aldiko itzultzaile teknikak eta itzulpen-irizpideak.

Argi dago egon, zeregin hau betetzeko, ongi etorri zitzaizkiola Don Manueli seminarioan emandako eskolak, batez ere euskara, grekera biblikoa, hebraiera; eta jakina, Gotzaindegiko Buletinerako egin zituen itzulpenak; eta zer esanik ez, herri hizkuntzaren zale porrokatua beti izana.

4.3. Irizpide metodologiko-teorikoak

Andoaingo urtealdian asko idatzi zuen Manuel Lekuonak dibulgazio mailan. Baina ez da ahaztekoa ere iker-sailean garai honetan ekarri zuena. Arreta berezia jarriko genioke hiru idazlan hauei: bi etno-historiaren metodologiak dihardutenak, eta bat, arteari buruzko traktatu laburra, gaiari buruzko teorizazioa agertuz.

Metodologi arloan interesgarria da, dudarik gabe, «Escollos de nuestra historiografía. (Notas de buen sentido para nuestros historiógrafos)» (1971) izenburua daraman artikulua. Esaten digu autoreak, «historiografian badirela arazoak, askotan ongi planteiatzen ez direnak, eta beraz, soluziobide onik hartzen ez dutenak, interpretazio okerrei leku emanez». Eta lehenik aipatzen duen arazoa da, nola lotu Historia Prehistoriarekin». Gero, iker-iturrien arazoa dakar: dokumentuak Historiaren iturri bakarra bailiran... baina badaude beste iturriak ere, «lagungarri» deitzen direnak: usarioa, arkeologia, geografia eta toponimia, etnologia eta erakundeak. Eta iturri hauek «erabiltzen ez badira», ankamotz geratzen da historia: eta gaizki erabiltzen badira, berriz, okerrak etor litezke»⁴⁵. Bere laburrean, argi eta garbi agertzen digu, zein den berak darabilkien metodologia lekuan lekuko histori gaietan, eta «iturri laguntzaileei» dien begirunea.

Bada Don Manuelen beste idazlan bat, metodologia berbera erabiliz egina. Autorearen ustetan, ikaslan horretan azaltzen da bere ikuspuntu pertsonala, gure mundu arkeo-etnikoan ikusten diren lekuko jakingarriei buruz. «Euskalerría historiaren sarreran» (1960) deitzen da. Egilearentzat «ikasgai» bat da, goi-mailako dibulgazio-lana. Laburbilduz, hala

45. ID., *ibid.*, 6 tomoa... 7-23 or.

